

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

5647

EBAZPENA, 2018ko urriaren 25ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzak ematea ebazten duena.

EGITATEAK

1.– 2018ko ekainaren 29an, ebazpen hau argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: Ebazpena, 2018ko ekainaren 13koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena.

2.– I. Eranskineko ikerketa-proiektuak, zeinak onartuak izan baitira laguntza jasotzeko, urtebeteko epean egin beharko dira. Laguntza onartu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen epea.

3.– 2018ko uztailaren 30ean bukatu zen eskabideak aurkezteko epea; guztira, 5 eskabide aurkeztu ziren.

4.– Eskabideak balorazio-batzordeak ebaluatu zituen, deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera, eta proposamena Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari jakinarazi zion, ebazpena eman zezan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duen Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2018ko ekainaren 13ko Ebazpenaren 19. artikulua dioenez, eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzeko den uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuak emandako eskumenekin bat etorriz, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpen bidez emango edo ukatuko ditu eskatutako diru-laguntzak.

Horiek horrela, balorazio-batzordearen proposamena ikusirik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eranskinean onartu gisa azaltzen diren eskabideei diru-laguntza ematea. Onuradunak eta laguntzen zenbatekoak ere I. eranskinean azaltzen dira.

Bigarrena.– Ebazpen honetako I. eranskinean baztertu gisa azaltzen diren eskabideak ukatzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, zeinak amaiera ematen baitio administrazio-bideari, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin

eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoarekin bat etorritz. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena espresuki jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoa betez.

Barakaldo, 2018ko urriaren 25a.

Osalaneko zuzendari nagusia,
ALBERTO ALONSO MARTÍN.

I. ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Gaia	Eskabide-zk.	Entitatea – Proiektua	Puntuazioa	Diru-laguntza
1. gaia	3. zk.	Osarten Kooperatiba Elkartea.– Formaldehidoarekiko esposizioa: langileen osasunean daukan eragina aztertzea eta eraginaren adierazle biologikoak identifikatzea	66,50 puntu.	50.000,00 €
2. gaia	4. zk.	Osarten Kooperatiba Elkartea.– Disruptore endokrinoak estirenoaren eraginpean dauden langileengan duen eragina aztertzea.	65,80 puntu.	50.000,00 €

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK ETA ESKABIDERIK GABEKO GAIK

Gaia	Eskabide-zk.	Entitatea - Proiektua	Arrazoiak
3. gaia	----	----	(2)
4. gaia	2. zk.	Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea.– Ostalaritzaren sektorean, migratzaileen alderdi kulturalak eta laneko arriskuak aztertzea	(1)
5. gaia	6. zk.	Industria Segurtasuneko Espainiako Plataforma Teknologikoa (PESI).– Gida metodologikoa, digitalizazio-prozesuetan laneko segurtasuna eta osasuna integratzeko eta lana antolatzeko modu berriak sartzeko (Industria 4.0).	(4)
6. gaia	----	----	(2)
7. gaia	----	----	(2)
8. gaia	5. zk.	Fundación Gaiker.– Lan-arriskuen prebentzioa ebaluatzea, grafeno-nanomaterialak ekoizten dituen enpresa batean (Graphetox).	(3)
9. gaia	----	----	(2)

Arrazoiak deskribapena:

1) Proiektuak ez ditu gainditu gutxienezko 40 puntuak a) irizpidearen balorazioan («Irizpide teknikoak: ikerketa-jardueraren maila zientifiko-teknikoa») edo 60 puntu, balorazio-irizpide guztien baturan.

2) Ez da gaiarekin lotutako proiekturik aurkeztu.

3) Proiektua baztertu egin da I. eranskinaren gaiarekin bat ez etortzeagatik (deialdiko oinarrien 18. artikularen 1. puntua).

4) Eskabidean atzera egin da, akatsak zuzentzeko errekerimenduari ez baitzaio epe barruan erantzun. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 68.1. artikulua.